



## Gaur ekingo diote Orexan Kultur Hamabostaldiari

**EKITALDIAK** ▶ Hitzaldiak, herri afariak, antzerkiak eta Orexa-Uitzi harremana dira ardatz nagusiak

**LELOA** ▶ 'Gizartean ditugun kezka' da aurtengo gaia; gaur, Paul Nicholsonen hitzaldia ▶ 6

### TOLOALDEA ▶

#### Munduko Txapelketako finalerdietan dira jada

Arozena, Urkizu, Urkola, Iñurrita eta Bengoetxea ari dira ▶ 3

### ALEGIA ▶



HITZA

#### Argazki Lehiaketako sariak banatuta

Irudien erakusketa zabaldu dute ▶ 4

### LEITZA ▶

#### Zine denboraldia hasteko dena prest

'Tapas' filma izango da lehena; ostiral eta igandetan saioak ▶ 7



## Azken urteotako onena izan da VII. Azoka Berezia

**ZIZURKIL** ▶ Pozik dira Zizurkilgo Udal ordezkariak VIII. Azoka Berezia utzitakoarekin. Ainhoa Larrea teknikariaren esanetan, «azken urteotako balantze positiboena egin dugu». Jende asko joan zen azokara, eta 1.200 lagunek erabili zuten autobus zerbitzua. Salmenta ere oso ona izan zen, eta janari postuetako saltzai-

leak eta artisauek «pozik» gelditu ziren. Txahal errearen 600 pintxo saldu zituzten, eta 150 lagun elkartu zen bazkarian. Emakume Baserritarraren Elkarteak (EBEL) bere aldarrikapenak plazaratu zituen azokan jarritako postuan (argazkian). Baserriko Argia saria Olatza baserriko Eskolastika Zabalak jaso zuen. HITZA ▶ 3

## 37. ABESBATZA LEHIAKETA ▶

# Mundu osoko ahots goxoen zain

Etzi emango diote hasiera Abesbatza Lehiaketari; asteartea bitarte mundu osoko abesbatzak ariko dira lehian

NOELIA LATABURU

Etzi hasiko da Tolosan 37. Abesbatza Lehiaketa. Bost egunetan zehar, munduko txoko ezberdinetako abesbatzek herria hartuko dute, euren ahots goxoen doinuekin. Batzuk dagoeneko hemen dira, besteak bidean. Baina guztiak ere maleta ilusioz beteta eta ahazteztina izango den esperientzia bizitu nahian.

1969an lehen edizioa antolatu zenez gerotzik, makina bat abesbatzak bisitatu dute Leidor aretoko eszenalekua —1.000 baino gehiago—. Aurtengoan, Leidorreko berritze lanak direla eta, gune berri bat estreinatuko dute abesbatzek, Usabal kirolgune berria, hain zuzen ere. Guztira, hogeitau ariko dira lehian: Bat-Kol Children's choir (Israel), Calmus Emssemble Leipzig (Alemania), Chor Akademicki Uniwersytetu Warszawskiego (Polonia), Claras Lucas (Kuba), Cor Infantil San Cugat (Katalunia), Coral Antiphona (Venezuela), Coro Misto (Danimarka), Coro Universitario de San Juan (Argentina), Goeyvaerts Consort (Belgika), Maria Magdalena Motetkór (Suezia), Maria Vokalsensemble (Suezia), Mibizio (Txekia), Miraculum Children's Choir (Hungaria), Molto Cantabile (Suiza), Newfoundland Symphony Youth Choir (Kanada), Örebro Chamber Choir (Suezia), Radzivil (Bielorrusia), Schola Cantorum (Norvegia), The Tudor Consort (Zelanda Berria) eta Yellow Case (Letonia).

Hiru sail nagusietan banatzen da Lehiaketa. Lehenengoa ahots nahasieta da. Lehiaketa honetan gutxienez 20 eta gehienez 40 abeslariz osatuta

za izan dezake. Betebeharreko egitaraua honakoa izango da: Josu Elberdineren *Alami* lana, euskal inspirazio eta euskarazko testua duen konposizioa, eta aukera askeko hiru abesti, gutxienez. Beste sailean bezala, iraupena 15 eta 18 minutu artekoa beharko du izan.

Hirugarren saila ahots taldeena da. Hauen barnean, gutxienez 4 eta gehienez 16 abeslariz osatutako ahots taldeek parte hartu ahal izango dute, bai gizonak, bai emakumezkoak eta ahots nahasieta taldeek ere. Afizionatu nahiz profesionalak osaturik egon daitezke, eta ez dago adin mugarik. Sail honetako abeslariek musika erlijiosoko eta musika profanoa azpisailetan parte hartzea behartuta daude. Testu erlijiosoko aukera askeko egitarau bat abestu beharko dute. Egitarau honetan gutxienez ondorengo garaietako lanak abestu beharko dituzte: 1700. urtea baino lehen konposatutako lan bat, 1800 eta 1950 arteko beste bat, eta 1950 ondoren konposaturiko lan bat. Alor honetan edozein instrumentu erabil-tzea debekatuta dago, eta lane-tariko bat abesbatzaren herri-aldeko egile batena izango da. Bestalde, abesti bakoitza

Bigarren sail nagusia Haur Abesbatzek osatuko dute. Gutxienez 20 eta gehienez 40 ahotsak osatuko dituzte —1989. urtearen ondoren jaiotakoak— eta beren egitaraua *a capella* abestu behar dute. Hala ere, obra behartuaz gain, abestietako batek instrumentu melo-diko edo perkusiozkoen lagun-

izaera ezberdinekoa eta kontrastatua izatea gomendatzen dute antolatzaileek. Musika profanoaren kasuan, testu erlijiosorik gabeko aukera askeko egitaraua abestu beharko dute: 1700. urtea baino lehen konposatutako lan bat, 1800 eta 1950 arteko beste bat eta 1950 ondoren konposaturiko lan bat.



Txinako Lily Children's Choir sariekien, izako lehiaketan. JOKEMI SAIZAR

izaera ezberdinekoa eta kontrastatua izatea gomendatzen dute antolatzaileek. Musika profanoaren kasuan, testu erlijiosorik gabeko aukera askeko egitaraua abestu beharko dute: 1700. urtea baino lehen konposatutako lan bat, 1800 eta 1950 arteko beste bat eta 1950 ondoren konposaturiko lan bat.

## Aparteko bi kontzertu

Astelehenean eta asteartean Abesbatzen Lehiaketaren hari-ra, bi kontzertu berezi eskainiko dira. Lehena 20:00etan izango da, San Frantzisko elizan, Die Singphoniker Alemaniako seikotearen eskutik, Alfons Brandl-en zuzendaritzapean. Asteartean, berriz, Kubako Claras Lucas taldearen txanda izango da, ordu eta leku berean. Talde hau hiru emakumek

eta bi gizonak osatzen dute, Reynier Silegas Ramirez zuzendari dutela.

Bost sailetan lehenengo hirurentzako sariak banatuko dituzte. Honekin batera, entzulegoaren saria ere emango dute. Entzuleek bozkatu ahal izango dute, saioetara doazenean sarrreraren atzeko aldean bozkatzeko papertxoa aurkituko baitute. Abonua eskuratzen dutenek, berriz, lehiaketako bederatzai saioei dagozkien bederatzai paper jasoko dituzte. Paper horiek inprimaturik daramate sail bakoitzean parte hartzen duten abesbatzen zerrenda, eta beren kalifikazioa emateko hiru laukitxo, oso ona, ona eta normala. Gero zozketa egiten dute, eta irabazleak berak emango dio saria, amaierako saioan, abesbatza irabazleari. Dena prest, bada, lehiaketari hasiera emateko.

## EGITARAUA ▶ EGUNEZ EGUN

### ETZI, OSTIRALA

**19:30.** Usabal kirol gunean Profano sailean aurtengo Abesbatza Lehiaketan parte hartzen duten Ahots Taldeen saioa.

### LARUNBATA, URRIAK 29

**11:00.** Santa Klarako elizan, Ahots Taldeen kantaldia Musika Sakratuko sailean.  
**16:00.** Usabalen, Ahots Taldeen kantaldia, Musika Profano sailean.  
**19:30.** Usabalen abestuko dute Folklore eta Polifonia sailetan Lehiaketa honetako abesbatza partaideek.

### IGANDEA, URRIAK 30

**11:00.** Usabal kiroldegian, Haur Abesbatzen sailean parte hartzen duten Haur abesbatzen saioa.  
**17:00.** Usabal kirol gunean, Folklore eta Polifonia sailetan Lehiaketa honetan abesten duten abesbatzen saioa.

### ASTELEHENA, URRIAK 31

**20:00.** San Frantzisko elizan *Die Singphoniker* Alemaniako seikotearen eskutik aparteko kontzertua.  
**22:00.** Tolosako udaletxean Lehiaketara etorri diren zuzendariak eta pertsonaiei

Harrera Ofiziala egingo diete.

### 23:00etatik 00:00etara.

Beotibar pilotalekuan Abesbatzen dantzaldia; bertan Epaimahaiaren erabakia ezagutzera emango da.

### ASTEARTEA, AZAROAK 1

**11:00.** Usabalen Lehiaketako amaiera saioa eta sari banaketa. *Agur Jaunak* abestuz amaituko da ekintza.  
**14:30.** Ferialekuan, abesbatzen bazkaria.  
**20:00.** San Frantzisko elizan, *Claras Lucas* Kubako taldearen kontzertua.

hitza **txokoa** lagunen

# Egin zaituz harpidedun!

▶ **45 €-ren TRUKE, HITZA** egunero jasotzeaz gain, **HAINBAT ABANTAILA** izango dituzte harpidedunek. Harpidedunen txartela izango dute, besteak beste, eta **HITZAK** egiten dituen zozketetan parte hartzeko aukera.

▶ **HITZAren harpidedun izan nahi baduzu, deitu 943 30 43 46 telefono zenbakira.**

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAren harpidedun ordaintzaileen artean zozketak astero

ANOETA ▶

## Alkartasunak batzarrera deitu du bihar arratsalderako

Biltokiko taberna zerbitzua izango da jorratuko diren gaietako bat

ERREDAKZIOA

Alkartasuna biltokiak batzarrera deitu ditu, biharko, bai bazkideak baita herritar guztiak ere, egoitzan bertan. 18:00etan hasiko da bilera, eta gai garrantzitsuak jorratuko direnez, ahal duenak azaltzeko deialdia egin dute. Alde batetik, Biltokiko taberna zerbitzua martxan jartzeko jarraitutako kudeaketa adieraziko dute. Bestalde, ordutegi eta barne arautegiari eta proposamen berriei buruz hitz egingo dute. Azkenik, Benta Aldea jategian egiten den Milagrosa eguneko bazkaria izango dute hizpide.

TELEFONOAK ▶

**Larrialdiak. ((112))  
Osasuna.**

- ▶ Alegialdea. Osasun z.: 653212
  - ▶ Anoeta-Alkiza-Hernalde. Medikua: 65 23 39
  - ▶ Asteasu. Medikua: 692423
  - ▶ Baliarrain. Medikua: 889003
  - ▶ Berastegi-Elduain. Medikua: 683361
  - ▶ Bidegoian. Medikua: 681134
  - ▶ Ibarraldea. Osasun etxea: 672411
  - ▶ Ikaztegieta. Medikua: 653329
  - ▶ Irura. Osasun zentroa: 690720
  - ▶ Leitza. Osasun z.: 948 510800
  - ▶ Orendain. Medikua: 655595
  - ▶ Oresa. Medikua: 682228
  - ▶ Tolosa.
    - ▶ Anbulatorioa, larrialdia: 461111
    - ▶ San Esteban: 006800
    - ▶ Gernikako arbola: 006900
    - ▶ Amaroizko dispen.: 672637
    - ▶ Asunzion Klinika 675799 - 67 53 90 (larrialdiak)
    - ▶ DYA: 672536
    - ▶ Gurutze Gorria: 674888
  - ▶ Villabona. Anbulat.: 006970
  - ▶ Zizurkil. Aiztondo zerb.: 693930
- Garraioak.**
- ▶ Renfe: 902 24 02 02
  - ▶ Donostiako autobusa: 361740
  - ▶ Tolosaldea bus: 650621
  - ▶ Leitzarzan autob.: 948 221015
  - ▶ Taxia: 670420
  - ▶ Taxia (Leitza): 608 873016
- Besterik.**
- ▶ Ertzaintza: 538820
  - ▶ Tolosa-Udaltzaingoa: 675858
  - ▶ Tolargi: 650016
  - ▶ Iurraremendi egoitza: 670325
  - ▶ Tolosa gasa: 675320

ZIZURKIL ▶ VIII. AZOKA BEREZIA

# Azken urteotako balantze «positiboena» egin du Udalak

EBELek bere aldarrikapenak plazaratu zituen azokan jarritako postuan

IMANOL GARCIA

Pasa den igandean egindako VIII. Azoka Bereziaren balantze ona egin du Zizurkilgo Udalak. «Azken urteotako balantze positiboena egin dugu», adierazi dio Ainhoa Larrea teknikariak HITZARI. «Jende asko izan zen. 1.200 lagunek autobus zerbitzua erabili zuten Zizurkil Gora joateko».

Erosketak egiteko gonbita luzatu zuen Udalak, eta bisitariak erantzun zuten. «Oso ondo funtzionatu zuen erosketen aldetik. Janari postuak jarri zituztenek eta artisauak gustura gelditu ziren, eta batzuk harrituta egindako salmentarekin».

Giro ederra izan zen orokorrean. Txahal errearen 600 pintxo inguru saldu zituzten, eta bazkarian 150 lagun elkartu ziren. Arratsaldeko eskualdeko trikitilarien emanaldira ere jende asko bildu zen. Baserriko Argia saria Olatza baserriko Eskolastika Zabalak jaso zuen. Urtero jarri du bere postua, eta



EBELeko postuan aldarrikapena egin zuten igandeko azokan. HITZA

ilusio handia egin zion jasotako sariak.

Bestalde, azokak izaera berezia hartzen ari dela diote Udaletik. «Orain hiru urte Baserriko Argia eskultura jarri zen eta urtero emakume baserriarren lanari errekonozimendua egiteko gunea bihur-

tzen da», dio Larre Udal teknikariak.

**Azokak indartzea**

Izan ere, Emakume Baserriarren Elkartek (EBEL) Zizurkilgo Azoka Bereziaren parte hartzen du. Baserriko Argia eskul-

turaren III. urteurrenaren ospakizuna egin zuten eskulturaren inguruan ekitaldia eginez. Elkartek jarritako postuan emakume baserriarren errekonozimendua aldarrikatu zuten. «Museo bateko piezak ez garela azaldu nahi genuen», adierazi dio HITZARI Maider Aramendi EBELeko koordinatzaileak. «Azokak folklorea bailiran ikusten dira batzuetan, eta ideia horri buelta eman behar zaiola ikusten dugu. Azokak indartu behar dira, batez ere egunero eta astero egiten direnak». Tolosaldean astero egiten dira azokak: Tolosan larunbatetan, Villabonan astarteretan, Ibarren ostiraletan eta Alegian asteazketan. Leitzaan ere ostiraletan izaten da azoka.

«Zuzeneko salmenta oso garrantzitsua da», gaineratu du Aramendik. «Elidakura eta kontsumo orekatu baten alde gaude, eta azokak dira hori bermatzeko modua. Gizartea horretaz jabetzeko lanean ari gara».

KIROLA ▶

## Finalerdietara iritsi dira eskualdeko pilotariak Munduko Txapelketan

ERREDAKZIOA

Eskualdeko bost pilotariak Munduko Txapelketa ona jokatzen ari dira Txilen. Bai gomazko paleta argentinarrean ari diren Nagore Arozena lizartzarra eta Itsaso Urkizu berastegiarrak (Anoetako Kuku elkartearen aritzen dira biak), eta xarean ari diren Urtzi Urkola eta Erik Iñurritia irurarrak (Irurako Ametsa elkarteak) eta Egoitz Bengoetxea billabonatarra (Villabonako Behar-Zana elkarteakoa) finalerdietara iritsi dira.

Bai modalitate bakoitzean bai bestean lauko taldea osatzen dute, eta hautatzaileak erabakitzen du zeinek jokatu partida bakoitza. Arozenari eta Urkizuri uste baino zailagoa egin zaie taldearekin sailkapena lortzea; izan ere, igandean espero ez zen partida galdu baitzuten mexikarren aurka. Hala ere, hasierako sustoaren

ondoren, ligaxkako azken partida irabaztea lortu dute. Finalerdia gaur izango dira, 19:00etan (hemengo 01:00etan) eta aurkari gogorrak izango dituzte; hain zuzen ere, azken 22 urtez azpiko Munduko Txapelketako txapeldun izandakoak, Iparraldeko pilotariak.

Bestalde, xareko pilotariak ere amaitu dute ligaxka eta, beren multzoan bigarrenak geratu direnez, finalerdia jokatuko dituzte gaur, 16:00etan (hemengo 22:00etan). Ligaxkako lehenengo partida nahiko erraz irabazi zuten Txileren aurka, baina bigarrenengo partidan tanto bakar batengatik ezin izan dute multzoko lehen postua lortu. Partida honetako emaitza oso garrantzitsua zen xareko jokalarientzat, izan ere, multzoko lehenengoak gertzea komeni zitzaizkien; gisa honetara finalerdiko partida erra-

zagoa tokatzeko, Argentina edo Mexikoren aurka. Azkenean Iparraldekoen aurka jokatu behar dute. Aipatu beharra dago jokamolde honetan gaur egun Iparraldeko ordezkariek oso maila altua dutela besteekin alderatuz. Beraz, hautatzaileek jokatzeko jartzen badituzte, bai gomazko paleta argentinarrean bai xarean finalerdi gogorrak izango dituzte eskualdeko pilotariak.



Itsaso Urkizu. HITZA

iragarki laburrak ▶

**LANA**  
**Peoiak.** Hiru peoi behar dira obratarako. 685 72 01 18.

**SALGAI**  
**Furgoneta.** Furgoneta salgai. Nissan Serena 95ekoa. 1,50eko oherarekin. 3.000 euro. 658 76 89 64.

**TOLOSALDEKO HITZA.INFO**

**Eztabaida.** Ehiza garaian erabat murgildurik gaude, eta eskualdean makina bat izango dira eskopeta hartu eta postuen atzean uso bandoen zain jardungo direnak. Ehizaren aldekoa ala kontrakoa zara?

## ALEGIA ▶ II. KULTUR ASTEA



**Alegiako etxeak.** Irati Garmendiak 16 urtetik beherakoen kategorian bigarren saria irabazi zuen Alegian ateratako argazki honekin; *Belostegiko etxeak* izenarekin. m. s. s.



**Originaltasuna.** Eñaut Zabala gaztearen originaltasunak saria izan zuen eta lehenengo postua lortu zuen. Bere lanari *Horma margotua* deitu dio. m. s. s.

## Argazki festa handia

Argazki Lehiaketako sari banaketaren ostean, Udaleko ganbaran erakusketa zabaldu dute azaroaren 1a bitarte

MARTA SAN SEBASTIAN

Urduri eta geldiezinik igo ziren haur, gazte eta helduak Alegiako udaletxeko eskaileretatik ganbararaino. Agian inoiz ez ziren bertan izan, baina, oraingoan, Argazki Lehiaketan aurkeztu diren argazkien erakusketa egokitu dute han. Ganbaratxoak erdi ilunpera eramaten ditu argazkiak, nolabaiteko misterioa

sortuz. Eta, noski, inork ez zuen estreinaldia galdu nahi.

Sari banaketa baino lehenago aureskua dantzatu zuten herriko enparantzian. 20 argazki inguru jaso dituzte Argazki Lehiaketako antolatzaileek. Ez dira asko. Hala ere, «lehenengo aldia da argazki lehiaketa antolatzen dugula eta normala da», zioen antolatzaileetako batek.

16 urtez gorakoen kategorian Txarli Gesteirarentzat izan

da lehen saria *Dantzariak* izeneko argazkiarekin, eta bigarrena Patxi Renobalesentzat *Txoria elikatzen* argazkiarengatik. Txintxarri jatetxean bi lagunentzako afaria irabazi dute. 16 urtetik beherakoen kategorian, lehen saria —Bilintx liburudendan 60 euroko balea— Eñaut Zabalak irabazi du, *Horma margotua* artelanarekin; eta bigarren saria —30 euroko balea— Irati Garmendiarentzat izan zen, *Belostegiko etxeak* argazkiarekin.

Sari banaketaren unetik hasi eta azaroaren 1a bitarte izango dira ikusgai lehiaketan parte hartu duten argazki guztiak. Ordutegia goizez 11:00etatik 12:30era izango, da eta arratsaldez 19:00etatik 20:30era.



**Bikotea dantzan.** Txarli Gesteirak dantzarien argazki polit honekin irabazi du 16 urtetik gorakoen kategorian lehenengo saria. *Dantzariak* izena jarri dio zuri-beltzean atera duen argazki honi. m. s. s.



**Egunerokotasuna.** Patxi Renobales alegiarrak egunerokotasunaren berezitasuna bilatu du argazki honetan eta 16 urtetik gorakoen kategorian bigarren saria irabaztea lortu du. *Txoria elikatzen* deitu dio bere lanari, eta Alegian nonbait dabilen txoria du protagonista. m. s. s.

OSTALARITZA  
GIDA  
2006



Tolosaldeko eta Goierriko:

- Jatetxeak
  - Erretegiak
  - Pintxo tabernak
  - Sagardotegiak
- bilduko dituen gida.

Jarri zure iragarkia ostalaritza gidan

17.000 aleko banaketa zabalda

Iragarkiak kontratatzeko:  
843 304 333  
publi@iragarr.net

Goierri

hitza





**DAGOENEO ABIAN DA #90. PROIEKTUA:  
IPUPOMAMUA ASTEASUN.**

Inbertsioa 600.000 euro

Ipu- ipuinak. Po- poesia. Ma- marrazkiak.  
Mu- Musika. Ipupomamua euskeraz sortzeko  
gunea izango da. Artea eta hizkuntzaztertzen  
dituen foroa da. aitzindari izan nahi duena.  
Proiektutik heratago dagoen proiektua.  
Aperteko Inbertsio Planaren barruan aurrera  
doan errealitatea da. Tolosako Usabai hiridegia,  
Leidor berria. Fraisoro zaharberritzea eta  
Iurramenoko zahar egoitzaren egonitza  
bezaia... Egunetik egunera errealitate bihurtzen  
ari zaren proiektuak dira.

**Aperteko Inbertsio Plana.**  
Tolosaldean ere bai.

Aperteko Inbertsio  
Plana 2004-2007



Plan extraordinario  
de inversiones 2004-2007



Euzko Legebiltzariaren  
Diputación Foral de Gipuzkoa

## IBARRA ▶

## 'Zure enpresaren web orria nola promozionatu'

Ibarrako KZgunean ikastaroak antolatu dituzte urriari. Gaur, *Zure enpresaren web orria nola promozionatu eta edukiez bete* irakatsiko dute, 16:00etatik 18:00-etara.

## IBARRA ▶

## Alurr-en 10. urteurreneko DVDa salgai

Ibarrako Alurr dantza taldeak bere 10. urteurreneko ospakizunen harira urteotako irudiekin osatutako bilduma salgai dago Ibarrako Zubiaurre tabernan eta Lourdes liburu dendan, eta Tolosako Ortzadar dendan (Maxi Eroskiren parean), 12 eurotan.

## LEABURU ▶

## Sendagilearen zerbitzurako txanda hartzea

Leaburuko sendagileak bisita ostegunetan izan ohi du. Ibarrako ambulategian hartu behar da txanda, edo 943 67 24 11 zenbakira hots eginez.

## TRAFIKOA ▶

## Kamioi batek su hartu eta ilada luzeak N-1ean

Kamioi batek su hartu zuen atzo, 16:00ak aldera, N-1 errepidean, Tolosako sarrearen parean, Ertzaintzak adierazi zuenez, matxura baten ondorioz. Suhiltzaileak seguitan bertaratu eta sua itzali egin zuten. Baina kamioiak karril bat oztopatzen zuenez, Irurainoko iladak ziren oraindik erredakzio hau ixterakoan.

## OREXA ▶ KULTURA

## Ekitaldi andana aurtengo Kultur Hamabostaldian

Gaia: 'Gizartean ditugun kezak'; Oresa-Uitzi harremana, hitzaldiak, antzerkiak eta herri afariak dira ardatz nagusiak

IÑIGO TERRADILLOS

Urteko sasoi honetan egin ohi duten moduan, gaur hasi eta datorren azaroaren 5a bitarte Kultur Hamabostaldia egingo dute Oresan; beraz, egun horietan zehar adin guztiei zuzenduriko hainbat ekitaldiz gozatzeko aukera izango da.

Aurtengoa 18. edizioa izango da; izan ere, 1988. urtean hasi ziren Kultur Hamabostaldia antolatzen Orixeren mendeurrena zela eta. Hain zuen ere, Orixen Oresan jaio eta Uitzin hazi zenez, bi herrien artean egin zituzten hainbat ekitaldi estreinakoa, eta geroztik urte hartan sorturiko harremanarekin jarraitzeko ekimen batzuk mantendu dituzte, Uitzin-Oresa ibilaldia eta herri bazkaria, kasu. Horretaz gain, beste hiru ardatz nagusi izango dituen hamabostaldiak: hitzaldiak, antzerkiak eta herri bazkariak eta afariak. Hitzaldien kasuan, ia historiaren inguruan izan baziren, aurtengoa «gure gizarte mailako kezak» jorratuko dituzte; hala, gaur, Paul Nicholson ariko da gaur egungo nekazarien egoeraren inguruan eta datorren ostegunetan, berriz, Pello Zubiriaren etorkizuna nola ikusten duen energia mailan azalduko du. Antzerkietan, aipatzekoa da Hernaniko bertso eskolak eskainiko duena, «eraikuntza munduko negozioren» inguruan ariko baitira bertsoetan antzerki moduan. Bestalde, azken egunean, afariaren ostean, DJ Bull-en emanaldia izango da «hamabostaldia festa eginez amaitu dadin».



Ruper Ordorikaren kontzertuarekin eman zioten hasiera iaokoari. J. S.

## KULTUR HAMABOSTALDIA 2005 ▶ EGITARUA

Gaur hasi eta datorren azaroaren 5a bitarte makina bat ekitaldi antolatu dituzte Oresako Hamabostaldian.

**GAUR**  
21:30. *Baserritarak: gizartearen itxaropena* (Paul Nicholson).

**URRIAK 29, LARUNBATA**  
22:30. Antzerkia Latrikun taldearen eskutik: *Greban gaude*.

**URRIAK 30, IGANDEA**  
10:00. Uitzin-Oresa ibilaldia.  
14:00. Herri bazkaria Beñat

eta Lierni trikitilarien doinuek alaiturik.

**URRIAK 31, ASTELEHENA**  
22:30. *Bertso antzerkia* Hernaniko bertso eskolaren eskutik.

**AZAROAK 3, OSTEGUNA**  
21:30. *Petrolioeko etorkizuna*, Pello Zubiriaren eskutik.

**AZAROAK 5, LARUNBATA**  
16:30. Korri, Xalito eta Brinko pailazoaren eskutik *Show berria prestatzen* emanaldia.  
21:00. Herri afaria. Ondoren, erromeria DJ Bull-en eskutik.

## BERASTEGI ▶

## Iazko harrerak bultzatuta argazki rallya antolatu dute

Azaroaren 1ean egingo dira argazkiak; irabazleak azaroaren 27an jakinaraziko dira

I. TERRADILLOS

Berastegiko aurtengo Kultur Astea azaroaren 18tik 20ra eta 25etik 27ra izango da. Bi asteburu horietan kultur arloko hainbat ekitaldiz gozatzeko aukera izango dute herritarrek, eta horien artean 2005eko Argazki Rallya. Izan ere, ia hasitako ekimenak izandako arrakasta ikusita aurtengoa ere antolatzea erabaki dute.

Aurtengo rallyaren gaia *herriko txokoak* da, eta parte hartzaileek jarraitu beharreko prozedura ondorengoa izango da: azaroaren 1ean, 09:00etan, parte-hartzaileen aurkezpena eta argazki-filmaren banaketa, herriko plazan. Egunak irauten duen bitartean, parte-hartzaileek 12na argazki ateratzeko aukera izango dute. Atratsaldetan, 19:00ak edo 19:30ak inguruan, lehiakideek filmak aurkeztu beharko dituzte herriko plazan. Bestalde, argazki rallyaren antolatzaileek erregelatu dituzte, eta argazki erregelatuak azaroaren 7an itzuliko dizkiete egileei, 12 argazki horietatik 3 onenak aukeratu eta lehiaketara aurkez dituzten, egun berean. Halaber, saridunen izenak Kultur Astearen azken egunean, azaroaren 27an, jakinaraziko dituzte, eta hiru argazki onenek izango dute saria. Egun horretan bertan, Argazki Rallyan parte hartu duten argazki guztien erakusketa egingo da, pasa den urtean bezala, Urepele Gazte Elkartearen.

## hilberriak eta urteurrenak ▶

**Manu**  
Agur oihanak, agur itsaso, atariko lizardia imajinetan izkutatzen zait hurbileko izardia Ur epeletan ixuriz doa, herri baten izerdia irrintzi gorri, jauzika dator irabazlearen zaldia.

ORERETAN,  
2005eko URRIAREN 26an

**Manu**  
Bizitza Ametsa Heriotza  
Ura Suga Lurra

Izan ginen izan ginelako  
Niretzat hiru orotzapena  
Hiretzat nire laztan goxoena

2004ko URRIAREN 26a

▶ hilberriak  
▶ urteurrenak  
▶ eskertzak

**Gipuzkoan**  
50.000 etxetara

HITZA guztietan prezio beragatik

**ESKELAK**  
19:00ak arte hartzen dira  
Telf.: 943 65 56 95  
tolosaldean@tolosaldeko hitza.info

LEITZA ▶ KULTURA

# Zine denboraldiak etzi ekinen dio ibiliari, 'Tapas' filmarekin

Ohi bezala, ostiral gauetan eta igande arratsaldetan botako dituzte proiektioak; aurten ere askotariko filmeak ikusgai



Aurtengo zenbait filmeren iragarpen-kartelak: handiena, *Charlie y la fabrica de chocolate*; goian, *Lila dice*; behian, *Tapas*. HITZA

## JAIONE ASTIBIA

Etzitik aurrera eta hurrengo hilabeteotan, berriz ere Leitzako zinemaren filmak ikusteko aukera izanen da. Ohi bezala, sesio bikoitza izanen da, ostiraletan gauez, 22:30etan hasita, eta igandetan, arratsaldean, 19:30etik aurrera.

Aurten, hazi bezala, Maria Uriartek hartu du proiektzioaren ardura, sarreretatik lortzen denaren trukean, eta dagoeneko jakinarazi du Eguerriak bitar-

tengo egitaraua. Zortzi film aukeratu ditu aurtengo denboraldi honen lehen zatirako: «Saia-tu naiz denetik ekartzten: komertzialak, ez hain ezagunak; herrialde desberdinetakoak; generoari ere erreparatu diot pixka bat», azaldu dio HIRZARI BERAK, «beti bezalatsu», dioenez. Baina guztiak franko berririk direla nabarmendu zuen, «bakarren bat kenduta, hemen aurten estreinatutakoak», egiaztatu ahal izan denez.

Horrela, esate baterako, aur-

tengo Prentsako Kritikaren Saria, Fipresci Saria, alegia, esku-ratu duen Kim Ki-duk zuzendari hego-korearraren *Hierro 3* drama ikusteko aukera izanen dute bertako zinezaleek; edo Michael Winterbottom zuzendari britaniar azkar bezain ospetsuaren *Código 46*, zientzia fikziozkoa; edo tartean da, baita ere, *Charlie y la fabrica de chocolate*, Tim Burtonena, abenduko zubi luze horretarako ekarriko duena, umeez ez ezik, helduek ere gogoko izanen dutelakoan... Aurtengo denboraldirako, aipatu duenez, «soinua oso ona izanen da, frogak egin ditugu eta oso ongi entzuten da», argitu zuen, baliabide teknikoetan egindako berrikuntza eta hobekuntza batzuk tarteko, «bi baffle berri jarri dira eta nahaste-mahaia ere bai», zehaztuz.

Txanda honen ondoren, indartsu hasteko asmoak azaldu ditu, bestalde: «*Aupa Etxebeste!* eta *Obaba* ekartzeko asmoa dut», zioen gogotsu. Argitu zuenez, ordea, horrelako filmak ekarri ahal izateko «itxaron egin behar da, aurrena hiriburuetara eramaten dituzte eta gero hasten dira herrietara eta zabaltzen, eta eskaria handi samarra izanen da ziur aski». Berak zehaztu duenez, esate baterako, *Aupa Etxebes-*

## EGITARAUA ▶

Aste honetatik aurrera, astebururo, ostiraletan 22:30ean eta igandetan 19:30ean botako dituzte filmak Leitzako zinema aretoan; abenduaren 3a, larunbata izanik, 16:30ean egingen dute proiektioa.

**Urriak 28 eta 30:** *Tapas*. Zuzendariak: J. Corbacho eta J. Cruz.

**Azaroak 4 eta 6:** *Entre copas*. Zuzendaria: Alexander Payne.

**Azaroak 11 eta 13:** *Código 46*. Zuzendaria: Michael Winterbottom.

**Azaroak 18 eta 20:** *Lila dice*. Zuzendaria: Ziad Doueiri.

**Azaroak 25 eta 27:** *Hierro 3*. Zuzendaria: Kim Ki-duk.

**Abenduak 2, 3 eta 4:** *Charlie y la fábrica de chocolate*. Zuzendaria: Tim Burton.

**Abenduak 9 eta 11:** *Nadie sabe*. Zuzendaria: Tim Burton.

*te!* filmaren 25 kopia besterik ez omen daude eskariari aurre egiteko. «Baina ekarriko ditugu», zioen, baikor.

Kontuak kontu, etzi ekinen diete eta emankizunek bideari Leitzan, Corbacho eta Cruz zuzendari espainiarren *Tapas* filmarekin. Dramazko komedia honetan hiri handiko bost hiritarren beldurak, itxaropenak, ametsak... kontatu dituzte, euren bizimoduaren nahasteak istorioa osatuz. Besteak beste, Angel de Andres, Maria Galiana eta Elvira Mínguez aktorek egin zuten lan bertan.

5 euroren truke, film arrakastatsua hau ikusteko aukera etzi. Igandean, beste aukera.

LEITZA ▶

## Ateka Beltzan auzolan eguna izanen dute larunbatean

Etxeari garbaldi bat emateko bilduko dira; tresnak norberak eramateko deia

## J. ASTIBIA

Larunbat honetan, urriak 29, auzolana antolatu dute Ateka Beltzan, «etxea erabiltzen hasterako, garbaldi bat emateko» intentzioz. Hala eman dute jakitera Atakabeltz batzarretik. Goizean goiz hasiko omen dira lanean, 09:00etan dute egina hirtordua, eta bertan parte hartzeko deia egin dute «herri guztia-entzab».

Larunbateko auzolana etxea garbitzeko antolatu dute: «Garbitu ahala lehen-dabiziko erabilpenerako zer konponketa eta egokitzapen behar diren ikusiko da», azaldu dutenez.

«Atarian dauden zabor-rrak» lekutzeko asmoa dute, eta etxeko gelak errepasatuko dituzte, «zoruak eta lehioak». Horrela, «jendeari garbitzeko tresnak norberak bere-arekar ditzan», eskatu zuten: «Palak, erratzak, fregonak, pertzak, trapaak...», zehaztuz, «orokorrean garbitzeko erabiltzen direnak, alegia».

Behin behingoz Ateka Beltza erabiltzen hasteko prest agertu ziren hainbat herriko talde, irailaren 23an egindako batzarrean, eta horretarako «gutzieneko egokitzapena» egitekotan dira.

## iragarki laburrak ▶



**Aduna.** 608 m<sup>2</sup>-ko pabilioa alokeran, garabi-zubiarekin, bulegoak eraikita dituen. Telf.: 943 655 587 edo 669 36 89 94.

**Albiztur.** Berrikuntza behar duen

baserria, 200 m<sup>2</sup>-ko solairutik berezita, hiru solairu, 35.000 m<sup>2</sup>-ko lur-saila. Telf.: 943 655 587 edo 669 36 89 94.

**Andoain.** Berritutako etxebizitza altua, ikuspegi bikainak, igogailua eta terrazan solariuarekin. Telf.: 943 65 55 87 edo 669 36 89 94.

**Anoeta.** Estreinatzeko, etxebizitza duplexean, 4 logela, 2 bainugela, egongela, sukaldea, terraza eta garaiea aukeran. Telf.: 943 65 55 87 edo 669 36 89 94.

**Asteasu.** 2 solairuko pabilioa salgai edo alokeran, 1050 m<sup>2</sup> eta 250 m<sup>2</sup>-ko solairuarekin, modu guztietako tresnekin eta hobekuntzekin. Telf.: 943 65 55 87 edo 669 36 89 94.

**Beasain.** 45 m<sup>2</sup> erabilgarriko apartamentua eta lokal komertziala

salgai. Telf.: 943 65 55 87 edo 669 36 89 94.

**Berastegi.** 100 m<sup>2</sup>-ko bi solairuko borda, berrikuntza behararekin, 75.000 m<sup>2</sup>-ko lur-sailak, 35 eta 50 urtetako alertze-pinuarekin. Telf.: 943 65 55 87 edo 669 36 89 94.

**Berrobi.** 100 m<sup>2</sup>-ko etxebizitza, berrituta. Telf.: 943 65 55 87 edo 669 36 89 94.

**Berrobi.** 50 m<sup>2</sup>-ko etxebizitza salgai, planta baxuan. Berritua. Telf.: 943 65 55 87 edo 669 36 89 94.

**Bidania.** Erantsitako azken baxeta, eraikitako 160 m<sup>2</sup>. Telf.: 943 65 55 87 edo 669 36 89 94.

**Donostia.** Saguesen, 70 m<sup>2</sup>-ko duplexa salgai, berritua, igogailuarekin eta Groseko hondartzara ikuspegiarekin. Telf.:

943 65 55 87 edo 669 36 89 94.

**Legorreta.** 3 hektareako lur-saila, sarrera onarekin. Telf.: 943 65 55 87 edo 669 36 89 94.

**Lizartza.** Eraikuntza berriko 14.000 m<sup>2</sup> pabilioi salgai, 920 m<sup>2</sup>-ko azken moduluak. Telf.: 943 65 55 87 edo 669 36 89 94.

**Tolosa.** Santa Klara kalean, 90 m<sup>2</sup> dituen etxebizitza, berritua. Telf.: 943 65 55 87 edo 669 36 89 94.

**Tolosa.** Belate pasealekua, 4. solairuko etxebizitza, 70 m<sup>2</sup>-koa. Kanpoaldera, igogailuarekin eta trastelekuarekin. Telf.: 943 65 55 87 edo 669 36 89 94.

**Tolosa.** Apataerrek, duplex berritua, garaiearekin eta lur-sailarekin. Telf.: 943 65 55 87 edo 669 36 89 94.

**Tolosa.** Zumalakarregi kalean hirugarren solairuan berrituko etxebizitza salgai. Berritua, 3 edo 4 logelatako aukera. Telf.: 943 65 55 87 edo 669 36 89 94.

**Tolosa.** Zumalakarregi kalean, 150 m<sup>2</sup>-ko etxebizitza, egoera ezin hobean, garaiea aukeran. Telf.: 943 65 55 87 edo 669 36 89 94.

**Tolosa.** Pablo Gorosabel kalean azken apartamentua, eraikuntza berrikoa, 65 m<sup>2</sup> erabilgarriak. Telf.: 943 65 55 87 edo 669 36 89 94.

**Tolosa.** Alokarako etxebizitza ere baditugu. Bulegoan norbanakoarentzat informazioa.

**Segura.** Eraikitzen ari diren erantsitako 14 bila, 297.500 eurotik hasita. Telf.: 943 65 55 87 edo 669 36 89 94.



**AGENDA ▶**

**DEIALDIAK**

**Berastegi.** Herrian bertan langabetuentzat ikastaroak doan antolatzeak aukera dago, taldeak osatuz gero. Eskaintza zabala dago, eta bailarako enpresetan lan egiteko baliagarriak dira. Izen-ematea, udaletxean.  
**Villabona.** Salvadora paper fabrika botatzen ari direla eta, Kultur Etxea ixrita egongo da gaur.

**HITZALDIAK**

**Tolosa.** Tolosako toponimiari buruzko hitzaldi-tertulia antolatu du Euskara Batzordeak Juan Inazio Eloseggi eta Irma Goikoetxearekin, iritzi eta iradokizunak jaso eta denon artean toponimo egokienak jartzeko. 19:30ean, udaletxeko batzar aretoan.  
**Tolosa.** Ekuatore Gineako jardunaldien barruan, Gineako eta Sahara azpiko Afrikako emakumeen egoerari buruzko hitzaldia, Purificacion Angue Ondoren eskutik. Bihar, 18:00etan, Kultur Etxean.

**ZINEMA**

**Alegia.** François Dupeyron zuzendariaren *El señor Ibrahim y las flores del Corán*. 21:30ean, Gaztetxean.  
**Tolosa.** Francois Dupeyronen *Que es la vida*. Bihar, 21:30ean, Kultur Etxean. Tolosako zine-klubak antolatuta.

**GUARDIAKO FARMAZIAK**

**Gaur**  
**Leitza.** Larraia M.I. Elbarren 95. 112.  
**Tolosa.** Ollarrega, J. Martin Jose Iraola, 10. 943 67 24 38.

**IRRATIA**

**Txolarre Irratia**  
11:00-14:00. *Tolosaldeko ahotsa:*  
11:00etan, eguraldia Joxe Landarekin, HITZaren errepasoa, albisteak, oharra;  
11:30ean, Tolosan arratsaldean izango den toponimiari buruzko hitzaldi-tertuliaren inguruan Euskaltzaindiako Onomastika saileko Mikel Gorroategirekin;  
12:00etan, *Zortziko aldrebesa:* Amets Arzallus; 13:15ean, lehiaketa eta disko eskainiak.  
19:00-21:00. *Tolosaldeko ahotsa* (errepikapena).  
22:00-23:00. *Elektro gaua.*

▶ HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

**HITZA, zorion agurren tartea**  
Urtebetetzeak, urrezko ezteiak, ezkontzak, jaioberriak... zoriontzeko, etorri:  
**HITZAren egoitzetara:**  
**Araba etorbidea, 5 behea - TOLOSA • Udaletxeko bulegoa - LEITZA**  
Mesedez, argazkia bi egun lehenago ekarri. Mila esker!



**Babestu maiteen dituzunak.**

Zure etxea da zure bizitzako proiekturik garrantzitsuenetako bat. Egunez egun eraikitzen duzu, helburu bakar batez: Maiteen duzun pertsonak ahalik eta bizi-mailarik onena izan dezan. Eta horrek ez du ustekabekoren batengatik aldatu behar.

**Kutxa Bizitza-Asegurua** da lortzeko hainbeste ahalegintzen zaren egonkortasun hori bermatzeko biderik onena. Gertatzen dena gertatzen dela, maiteen duzun pertsona hori beti babestuta egon dadin.

**KUTXA BIZITZA-ASEGURUA**

Zure bizitzaren ondoren bizitza dagoelako.

Biharko Vida y Pensiones, S.A.rekin kontratatutako Kutxa Bizitza-Asegurua. **kutxa** da bere erregistroan 02 zk.ak ageri den aseguru agentziaren sozietatea.

Modalitate eta deskontuei buruzko argibideak jasotzeko gure bulegoetara, **901 333 555** zenbakira deituz eta **www.kutxa.net**-era jo dezakezu.